

EGIN

Sagardo dastaketa jendetsua

■ Azpeitiko uztargileak bere lana erakutsi zuen atzo Udaletxeko arkupetan. ■ Idi probak jende askoren arreta erakarri zuen eguerdi partean. ■ Euri zaparradak nagusitu ziren egunean zehar.

Jende asko hurbildu zen atzo eguerdian Foru Enparanzaraino sagardoa dastatzera eta idi probak ikustera. Zubietako zanpanzarrak ibili ziren herriko kaleetan zehar, eta blai eginda bukatu zuten, euri zaparradak tarteka agertu zirelako. Haurren gunea Joseba Barandiaran plaza izan zen atzo, bertan parke bat montatu zen. Gaur, berriz, akelarrea burutuko da arratsalde, Maripurtzil taldeak antolatuta.

O.SOTO

Giro ederra zegoen atzo goiko plazan, sagardo dastaketa eta idi probak burutzen ari ziren momentuan. Jendeak bere tokia azkar bilatu zuen, batzuk sagardogileen postuen inguruan bueltaka eta besteak, berriz, gradetan eserita idi probak ondo ikusteko.

Udaletxeko arkupetan jende multzo handia elkartu zen, bertan Azpeitiko uztargilea lanean ikusteko.

Artisaua jendez inguratuta egon arren, bere uztarriak egiten ari zuen patxada ederrean. Egur puska handi bat lurtean ipinita zeukan, eta hortxe ibili zen horri uztarriaren itxura ematen, eta apaintzeko marrazkiak egiten. Ondoan, beste bi uztarri zituen.

Sagardoa probatzeko ez zegoen arazorik, bakarrik curia ari zuenean, plaza aterkiz beteta zegoela eta hori eta horrenbestez nekez ibil zitekeela.

Haurrek ere izan zuten bere festa, Barandiaran plaza parke bilakatu zelako. Hortxe ibili ziren saltoka.

Azkeneko indarrak

Hiru egun parrandan ibili ondoren, norberaren indarrak gutxitzen doaz. Horregatik, azken egunerako ekitaldirik erakargarrienak uzten dira: arratsaldean koadrilan olinpiadak eta akelarrea burutuko dira.

Dena den, egun honetan adin guzietako pertsonentzat ekitaldiak egongo dira. Goizeko 8.30ean sokamuturra, Tolosako dultzaineroek girotuta. Goizeko 11etan pilota partiduen finalak jokatu dira.



Gure Izarrak Elkartek II. Bakailao Tortila txapelketa egingo du eguerdiko 12.30ean Foru Enparantzan. Arratsaldeko 1.30ean, «Brotos Navarros» taldeak jotak eskainiko ditu.

Arratsaldeko 7etatik aurrera, erraldoi eta buruhandien kalejira irteango da. 7.30ean saloi dantzak izango dira Joseba Barandiaran Plazan.

Su artifizialak

Gauko 11etan, Portugaleko Fados talde baten emanaldia «Almor Santos». Ordu erdi bat beranduago dantzaldia hasiko da Izadi taldearekin eta 12etan su artifizialak, Zamorano Caballer piroktenietxearen eskutik, eta 12.30ean zezen suzkoa. Honela amaituko dira aurtengo festak. Hala ere, San Roke egunaren ospakizuna gelditzen zaie astigarragatarrei, baina abuztuaren 15a arte itxoin beharko dute.

Egu hori Santiagomendin ospatzen da, eta egun osoko erromeria egiten da. Bertan, Astigar dantza taldeak, bertsolariek eta trikitilariek hartzen dute parte.



Idi probak jende askok bildu zuen goiko plazan.